

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Nekane Arrizabalaga

ZINEGOTZIAK :

Arkaitz Iruretagoiena Lertxundi	Iñigo Etxabe Azkue
Miriam Sarasola Eizmendi	Estibaliz Lizarreta Merino
Ahara Zuloaga Mintegui	Iñaki Telleria Astigarraga
Aitor Arregi Eizagirre	Hodeiza Sallen Molinero
Gontzal Alday Salaverria, eta	Irati Eizagirre Aguirre

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2019ko uztailaren 1ean, eginiko udalbatzarren akta , ontzat eman da aho batez.

2.- 2018. urteko Aurrekontuen Likidazioaren berri eman eta kontu Orokorrak onartu.

Idazkariak adierazi du, Kontu Orokorrak urtean zehar egin diren aurrekontu eragiketa guztien berri ematen duela eta ondoko hauek direla, aurrekontuarenak, aurrekontu-kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak.

Baita ere, udal entitateak aurrekontuaren likidazioaz gain, Kontu Orokorra egitera behartuta daudela eta ondoko hauek osatzen dutela: Udalarenak eta Aia-Lantzen, S.A. sozietate publikoaren (bere kapital sozialean %50tik gorako partaidetza baitu). Eta ondoko dokumentu hauek izango dituela:

1.- Aurrez Alkate dekretuz onartutako Aurrekontuaren likidazioa.

- 2.- Egoera balantzea, ekitaldiaren itxiera egunean Ondarearen Osaera eta Egoera adierazten duena.
- 3.- Galdu-irabazien kontua, ekitaldiaren emaitzak azaltzen dituena, ekonomia eta ondarearen ikuspuntutik.
- 4.- Ekitaldiaren txosten bat, urteko finantzaketa taula eta zorraren egoerarekin.

Aia Lantzen S.A.ren Administrazio Kontseiluak, uztailaren 2an, formulatu ditu 2018 urteko Kontuak

Bestalde, uztailaren 2an Kontu Orokorrerarako Batzorde Bereziak erabaki zuen 2018ko Kontu Orokorrari oniritzia eman eta jendaurrean jartzea. Jendaurrean jarri (BOG uztailaren 9an) eta agerraldi epean ez da inolako iradokizunik edo oharpenik aurkeztu.

Bozkatu eta aldeko 11 boturekin , aho batez, beraz, beharrezko gehiengoarekin, erabaki da:

- 1.- “ 2018ko udal Kontu Okorrrak onartzea”
- 2.- Diruzaintzako gerakinarekin finantziatu direlako 2018- ko hainbat obligazio, (451.142,73 €-rarte) ez gastu araua , ez eta egonkortasun helburuak betetzea ez bete izanaren egoeraren berri komunikatutzat jotzea.

3.- Eskari-galderak

Ez da izan ez eskari ezta galderik ere.

Bilera, 19,25ean bukatu da , eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, Idazkariak hau ematen dut,

Aian 2019eko uztailaren 30an.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK